

noaue



**Korrika apirilaren 8an
helduko da gure artera**

**Igande honetan
'Apaiz kartzela' filma
eskainiko dute Sutegin**



noaueus
web orrialdeak
20 urte bete ditu

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

Matrikula epea

urtarrilaren 27tik otsailaren 4a arte
(aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu 943 37 64 43- 943 36 66 08)

•HEZKUNTZA OROKORRA

(Oinarrizko kultur formakuntza: Euskara, Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, Idazketa.

Kalkuloan hastapena eta hobekuntza. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...)

• DBH-ko titulua (4 hilabeteko ikastaroak)

• EUSKARA TAILERRA (MAILA 1 ETA 2)

• GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT

• IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHAR



ARGIBIDEAK: 943 36 66 08



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

EUSKAL HERRI OSOAN ZERBITZU EMATEN DUGU
BEILATOKI GUZTIAK, ERRAUSKETAK

**zerbitzu pertsonala,
eta familia bakoitzari egokituta**
ASEGURU GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU
GURE FUNERARIAARA DEITU ZUZENEAN
ETA DENETAZ ARDURATUKO GARA

943 36 21 63 (24 orduez)



www.funerariagonzalez.es



**20 urte
sarean!**



noaUA

noaUA.eus, usurbildarren zerbitzura



Albisteak iruditan

Gabonetako zozketako saritu gehiago



30 euroko 30 erosketa-bonu zozketatu zituen hilabete hasieran Hurbilago Elkartek, aipatu bilguneko kide diren herriko saltokietan erosketak egin dituztenen artean. Sarituen berri, Hurbilagok ateratako argazkien bidez jasotzen ari gara. Aurreko astean 15 onuradunen irudiak argitaratu genituen. Hemen beste lau saritu.

Laburrean

Udal aurrekontuak, onartuak

Jendaurrean egon diren artean inork alegaziorik aurkeztu ez duenez, epe hau igarota behin betiko onartuak geratu dira 2022rako udal aurrekontuak. Ia 13 milioi eurokoak dira. Azaroaren 25eko udalbatzarrean hasieraz onartu ziren aurrekontuok.

Udal-aparejadore lanpostua

Udalak aparejadorea eta zerbitzu eta mantenu saileko burua lanpostua betetzeko prozesua abiatu du. Curriculumak aurkezteko azken eguna, urtarrilaren 26a (hori barne). Informazio gehiago udaleko idazkaritza sailean (943 37 19 51).

Intzidentzia beherantz

Urtarrilaren 12an 5580,22ko tasarekin goia jo ostean, beherantz doa pixkanaka Covid-19aren intzidentzia, aste hasieran 4676,60an zen. Iragan astean 119 kasu berri detektatu zituen Osasun Sailak Usurbilen.

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaqua.eus /// www.noaqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak
Usurbilgo Udala
Euskal Herrira!



Ainhoa Azpirotz

A spalditxo ikusarazi zidan lagun batek COVID-19aren pandemiak zein erronkaren aurrean jarri gintuen: elkarbizitza eta elkarren arteko errespetua. Hitz potolo horiek benetan lantzeko, kudeatzeko eta gorpuzteko atakan jarri gaitu COVID-19ak eta horren kudeaketak.

Ikastetxeetan eta guraso elkarreetan hitzaldiak eta ikastaroak ematen aritzen da aipatutako laguna eta 2020ko irailean ikastola batetik deitu zioten. Udaberriko konfinamenduaren ondoren, 2020ko irailean eskoletako atak berriro ireki ziren protokoloen eta neurrien artean, eta egoera berriaren kudeaketaz hitz egitera gonbidatu zuten. Irakasleak zein gurasoak elkartu ziren bertan, bakoitza bere bizipenekin, beldurrekin, ezinegonekin eta iritziarekin. Eta denak hantxe, ikastolako gela handi hartan, elkarrekin.

Nire lagun hizlariak argi eta garbi ikusi zuen gela hartan zegoen aniztasuna. Ez zen erlijio, genero, arraza, sexu, jatorri, kultura edo hizkuntza aniztasuna, baizik eta pandemiak gure artean sortutako iritzi eta bizipen aniztasuna. Eta nola bizi aniztasun hori errespetatuz? Horra hor erronka: nola egin denok lekua edukitzeko ikastola hartan bezalaxe kuadrillan, kiroldegian, tabernetan, bizilagunen artean,



“Nik zurea entzun, zuk nirea entzun eta elkarrekin paseatzen, poteatzen, kantuan, musean edo larrua jotzen jarraitu. Hori litzateke errespetua eta elkarbizitza”.

AINHOA AZPIROTZ

“Jar dezagun fokua ondo: kontua ez da COVID pasaportearen alde edo kontra egotea, baizik eta ezberdin pentsatzen dugunon arteko elkarbizitzaren alde edo kontra egitea”

kultur etxean, liburutegian, dendetan, ospitaleetan... Nik zurea entzun, zuk nirea entzun eta elkarrekin paseatzen, poteatzen, kantuan, musean edo larrua jotzen jarraitu. Hori izango litzateke errespetua eta elkarbizitza.

Bide horretan COVID pasaporteak ez du batere laguntzen, QR kodeak elkartu ordeztatzeko haziak erein ditzakeelako. Udalaren Udalberri aldizkariaren azken zenbakian (40. zbk. 2022-01-07) ere hala dio alkateak Osasun Sailari idazten dion gutunean: “COVID

ziurtagiriaren kasuan, gainera, zientzialariek eurek jarri dute neurriaren eraginkortasuna zailantzan, izan ere, txertatuta ere kutsa zaitezke edota ondokoak kutsatu. Ez da osasun neurri bat, hortaz, eta gainera, eskubideak urra ditzake, pertsona batzuekiko baztertzaila den neurrian, eta, beraz, oso kezkatuta gaude neurri horrek sor dezakeen estigma sozialarekin”.

Eremu gehiagotan ere sortu da kezka hori. Hala idatzi dute Euskal Herriko kultur gileek COVID pasaportearen inguruan: “Kultur gileak gara, ez epaileak, ez poliziak, ez zigortzaileak. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzaren azken erabakien gainean (COVID Ziurtagiri Digitala exijitzea) kezka eta desadostasuna adierazi nahi ditugu, kontzientzia eragozpenaren bidean. [...] Eztabaida hau txertaketaren beraren inguruko polemikatik haratago doala iruditzen zaigu, eta hori agertzeraz geroz plaza-

ra. Arau berria ezarri denetik kezka sakona eragin digu abiadura bizian zabaltzen ari den jendarte hausturak eta kaleko giro-txartzeak. Horrekin batera, bereziki larria iruditzen zaigu kultur ekimenetan herritarrek beste herritarren gainean kontrola ezarri behar izatea. Kultur balioen alde lan egiten dugu, komunitatea sendotzearen eta saretzearen alde, ezberdinen arteko elkar-eragutzairen eta komunikazioaren alde; zentzu horretan, arau berri honek balio horiekin zuzenean talka egiten duela iruditzen zaigu, haustura eragiten duela eta jende bati kultura jasotzeko eskubidea murriztu egiten diola” (testu osoa www.kulturgileakgara.info-n).

Idatzi horretan ez dago besteak konbentzitzeko intentziorik, egia borobila azaltzeko asmorik edo datuen zaparradarik. Jendartearen artean sor daitekeen hausturak kezkatzen dituela diote, eta elkarbizitzaren aldeko aldarri bat da.

Jar dezagun fokua ondo: kontua ez da pasaportearen alde edo kontra egotea, baizik eta ezberdin pentsatzen dugunon arteko elkarbizitzaren alde edo kontra egitea. Saretzea edo haustea, gure ingurukoekin topatzearen zeren alde egin nahi dugun argitzea.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



Etxealdiaren beharrei aurre egiten hasi dira

U surbil osatzen duten auzo eta herriengan arreta jarria du udal gobernu taldeak legealdi hasieratik. Besteak beste, etorkizuneko udalerria diseinatuko duen Hiria Antolatze Plan Orokorren (HAPO) lanketaren baitan zenbait parte hartze prozesu bideratu ditu Aginagan edota Zubietan, martxan dute Santueneakoa. Herritarrekin batera bideraturiko saioen bidez, ekarpenak bildu eta HAPO horretan txertatuko dituzte.

Formula bera errepikatu asmo dute orain Etxealdian. Aurtengorako onartuak dituzten 2022ko udal aurrekontuak aurkeztu eta herritarren proposamenak biltze aldera, hainbat ekarpen jasotzeko bilerak deitu zituen EHBilduren udal gobernu taldeak azaroan zehar, auzune desberdinetan. Estreinakoz baita Atxegalden eta Etxealdian. Etxealdiako saioan, gainerakoan antzera, auzoak izan zitezkeen beharrak ezaizatzeko baliatu zuten hitzordua deitzaileak.

Egunotan oroitu duten moduan, “Etxealdiako bizilagunek auzoari lotutako kezkak eta ekarpenak helarazi zizkieten udal ordezkariak”. Eta azaroa hasieran Potxoenean egin zuten bilera hartan, “udal-gobernuak



Etxealdiako bizilagunek auzoari lotutako kezkak eta ekarpenak helarazi zizkieten udal ordezkariak.

GABEZIA NAGUSIA

“Bereziki irisgarritasun arazoak izan ziren bileran zehar azaleratu zirenak”

konpromisoa hartu zuen, batetik, udaberrian parte-hartze prozesu xume bat egiteko auzotarrekin, eta bestetik, San Esteban kalea irisgarri izateko eta oinezkoen segurtasuna lehenesteko proiektu bat idazteko”.

Aparkaleku falta eta irisgarritasun arazoak

Horren harira, lehen topaketa

deitu zuen Udalak urtarilaren 19an Etxealdian bertan. Udal ordezkariak bat bertaratu zen auzora, auzotarrekin batera bildu eta zituzten ekarpenak biltzera. Auzoaren beharrak bertatik bertara ikusteko aukera izan zuten Etxealdian barrena egin zuten itzulari esker.

Auzoko bizilagunen ahotan, hiru behar azpimarragarri nagusi; batetik, Etxealdian duten aparkaleku falta. Bizilagunek auzoan bertan autoa aparkatu ezinik dira eguneko hainbat uneetan. Gutun nahiz banaketa zerbitzuekin ere arazorik izan dute San Esteban izeneko kalearen harira. Etxealdiako San Esteban kalearen eta izen

bereko auzoaren artean nahasketarik izan baita. Konplexua izango litzatekeen kalearen izen aldaketaz aritu ziren joan den asteko bileran.

Bereziki ordea, irisgarritasun arazoak izan ziren bileran zehar azaleraturiko Etxealdiako gabezia nagusien artean. Irisgarritasun arazoak Kaxkotik auzora jaitsi nahiz auzotik Kaxkora igotzeko. Baita zenbait etxe atarietan ere, mugikortasuna oztopa dezaketen eskailerengatik. Kale Nagusitik Etxealdiara jaisteko aldapari dagokionez, eremu horretako “irisgarritasuna hobetzeko proiektua enkargatu dugu” adierazi zuten udal gobernu taldek.

Aurtengo udal aurrekontuetan diru-partida bat gorde da

Hor dago errepidez bestaldeko tren geltokia eta Etxealdia zonalde horrekin lotzen duen zubia ere. Udalak Eusko Trenbide Sarearekin bideraturiko elkarlanaren ondorioz, geltokia eta zubia eraberritzeko proiektua erredaktatua dagoela gogorarazi zuten udal gobernu taldek.

Ia 10 milioi euroko inbertsioaren baitan, zubiak nabarmen hobetuko litzuzke egun

geltoki inguruak dituen irisgarritasun eta segurtasun arazoak; besteak beste Etxealdiatik Atallu nahiz Santuenea aldera joateko trenbide-pasagunea ezabatuko da eta zubiak tren geltokiarekin nahiz Atallurekin lotura zuzena izango du.

Auzo lokala, jolas parkea...

Etorkizunean gauzatuko den Etxealdia inguruko proiektuetako bat izango da. Baina

ez bakar. Auzoak dituen beharrei erantzuteko agenda lantzen hasi ziren aurreko asteko bileran; epe laburrean bidera daitezkeen eskuhartzak egin asmo ditu Udalak. 2022ko udal aurrekontuetan 15.000 euro erreserbatuak dituzte hain zuzen, “auzotarrek lehenesten duten inbertsioa burutzeko (auzo lokala txukuntzea, jolas parkea berritzea...)”.

Lan saioak Etxealdiako bizilagunekin

Epe luzeagora begira ere jarri asmo du Udalak; auzoaren etorkizuneko planeamendua landu asmo dute baita Etxealdiako bizilagunekin. Bizilagunekin lan saio batzuk egin eta jasotako ekarpenok 2023an hasieraz onartu asmo duten Hiria Antolatze Plan Orokorrean txertatu asmo dituzte.

Nerea Erauntzetamurgil, Udarregi: “Geroz eta gehiago ikastetxetik kanpora ateratzen gara”

2022-23 ikasturterako matrikulazio epea ixtear dute Udarregi Ikastolan. Ikastetxeko zuzendari Nerea Erauntzetamurgil duten eskaintzaz, pandemiak ekarri dien gainkargaz, nahiz bizi dugun osasun krisialdia uzten ari zaizkigun ikasgaiez mintzatu da NOAUA!rekin.

NOAUA! Zer du eskaintzeko Udarregi Ikastolak matrikulatzaera datorrenari?

Nerea Erauntzetamurgil: Herriarekin bat egin duen herri eskola bat eskaintzen diogu. Herriko eragile desberdinekin harremanetan gaude. Geroz eta gehiago ikastetxetik kanpora ateratzen gara, gure didaktika ikastolatik kanpo, herrian bertan ere eskaintzen dugu. Horrez gain, euskara eta euskal kulturaren transmisioan oinarritutako didaktika. 16 urterekin ikastolatik ateratzen direnean nolako ikasleak izatea nahiko genukeen zehaztua dugu. Guretzat ikasleak sortzaileak, euskaldun eleanitzak, euskaldun konprometituak,



“Herriarekin bat egin duen herri eskola bat eskaintzen diegu ikasleei”.

EKIMEN BERRITZAILEAK

“Baso Eskola aurten jarri dugu martxan. Naturak asko du guri eskaintzeko eta asko ikas daiteke”

kritikoak, feministak, autonomoak, inklusiboak, naturarekin konprometituak, ekintzaileak, jokabide etikodunak eta bere burua zaintzen dutenak izan behar lukete. Horretarako baliatzen dugu gure ikasmateriala, baliabideak, metodologia.

Herriarekin zubilanean ikusi zaituztegu sarritan, are gehia-

go pandemia garaian.

Proiektu solidario batzuk egin ditugu. Iaz erria garbitu zuten, baratzea lantzen da... Pandemia hasi aurretik Artzabalgo adinekoekin “Goazen kalera” ekimenean parte hartzen genuen. Haiekin paseoak eginez oso gustura aritzen ziren ikasleak, hor ere badago transmisioa.

Baso eskola eta kanpo espazioaren lanketa, beste adibideak.

Baso eskola aurten jarri dugu martxan, HH osoan eta LH 3. mailara arte. Naturak asko du guri eskaintzeko eta asko ikas

daiteke. Abiadura handian bizi gara, dena teknologiarri lotuta. Baso Eskolak gainerakoak ematen ez diguna orekatu eta sendatu dezake. Kanpo espazioaren lanketa bestalde, iaz auzolanean esaterako mahai eta eserleku batzuk egokitu ziren Ikastolaren eta Kiroldegia-riaren tarte horretan. Udala- ren laguntza eskertzekoa da. Lanketa horretan jarraitu be- har dugu.

Espazio hau ez da soilik aisial- dira begirakoa, ikastola ba- rruko jardunerako ere baliatzen ari zarete.

Klaseak emateko ere bai. Eraldaketa ekarri du. Ikasleak orain arte eraikin barruan sartuta zeuden. Saio bat bukatzean eten txiki bat egin eta beste espazio batera joatea ondo datorkiela ikusten da. Aire librean bada are hobeto. Hasierako beldurrak ere gaindituz goaz; hasieran iruditzen zitzaigun agian ez genuela haien arreta mantenduko, baina ikusten da gustura aritzen direla lanean.

Ikasleak erdigunean jartzeko ahalegina

NOAUA! Eraldakuntza betean zarete. Aldaketa sakona HH-n hasi zenuten konfiantzaren pedagogiarekin. Bide horretan sakontzen zoazte?

Nerea Erauntzetamurgil: Konfiantzaren pedagogiarekin espazioak, materialak, lan egiteko moduak erabat aldatu ziren HHn eta LHko lehen zikloan. Baso Eskola ere horregatik eraman da horraino. LH4an ikasleak geroz eta gehiago ikasgela barruan egoten hasten dira, baina ikusten genuen horrek ere bere mugak izan eta pixkanaka beste espazio batzuk ere era-

bili behar genituela ikasketarako. LHren bigarren zikloan eta DBHn EKI proiektuarekin lan egiten dugu. Geroz eta gehiago, konpententziaren irakaskuntzan oinarritutako metodologia erabili eta proiektu- tuka lan egiten dugu. LHn diziplina desberdinen arteko proiektuak egiten dituzte ebaluazio amaieran. DBHn ere arlo desberdinen arteko proiektuak gauzatzen hasi gara.

Adibidez, iaz 3. mailan biologia, fisika-kimika eta euskarakoak, hiruren artean ebaluazio osoan proiektu bat eraman zuten aurrera. Alegia,

beste etapetan ere aurrera- pausoak ematen ari gara eta horretarako ere espazio ego- kiak behar ditugu. Pixkanaka birmoldaketa bat ari gara aurreikusten eraikin honetarako eta beste eraikinerako, konfiantzaren pedagogia- ren garaian espazio irekiagoak sortu ziren bezala guk ere sortzeko, ikasleak erdigunean jarrita; emozioak kudeatzeko gela bat jarrita adibidez. Zenbat eta eta- petan gorago joan, eskuak lotu- agoak ditugu baina baditugu arlo batzuk; baloreak, tutoretza adibidez. Horietan ikasleekin erabakitzen dira egin beharreko

proiektuak. Iaz proiektu soli- darioa, erria garbitzea joa- tearena, edo baratza jartzeare- na edo aurten ere merkaturen bat edo egin nahi duten, ikas- leengandik, beraien nahi edo beharretatik ateratzen dira.

Espazioak zuen proiektura egokitzea azkenean.

Pandemiarekin are gehiago kalera atera beharra tokatu zaigu. Nahi bagenuen man- tendu irakaskuntza presen- tziala, kanpora atera beharra izan dugu eta horrek herrian zenbat gauza egin daitezkeen ikusten lagundu digu.

“Nahasmene handia zen gabonen aurretik, orain lasaixeago gaude”

NOAUA! Zuen jarduna pandemia garaira egokitu behar izan duzue. Nola ari zarete kudeatzen guztia?

Nerea Erauntzetamurgil: Nire ustez neurri zorrotzegiak betetzen ditugu, gero kalean ikusten ez direnak eta Hezkuntza Sailak ez dizkigu baliabideak ematen horretarako. Exijitu asko egiten digu burbuilak osatzeko, musukoak janzteko... Patioan musukoekin. Ze zentzu du? Protokolo aldaketan berri atera orduko bidali behar zaigula adierazi izan diogu behin baino gehiagotan Hezkuntza Sailari, baina komunikabideen bidez jasotzen dugu lehenik. Nahasmene handia zen gabonen aurretik, orain lasaixeago gaude, baina nekaz ere bai. Gure proiektua ere mugatu du. Konfiantzaren pedagogian zirkulazio handia eta txikia egiten dute eta hori ere une batzuetan geldituta izan dute. Eta garrantzitsua da etapa horretan zirkulazio hori egitea. Irakasleek jarritako zirkulazio handian bakoitzak bere autonomia landuz bere itzulia egiten zuen. Mugak baita jolastokian. Baziren ikasle batzuk beste gela batzuekin nahastu nahi zutenak eta ezin. Ikasturte honetan ez baina aurrekoan, tenperatura hartzen genien egunero eta hori oso ekintza bortitza da. Ospakizun



“Iruditzen zaigu txikitatik hasita hezi behar dugula osasunaren gaiaren inguruan”.

IRAKASLEEN LANA

“Zoriontzekoa da irakasleak egiten ari diren lana. Lana bikoiztu egiten da, gelan gehi etxean daudenez arduratu behar dira”

asko ere ezin egin behar bezala eta pena da, ikasleek asko gozatzen dute. Transmisioa ere galdu egiten da, herriarekiko harremana ere bai. Gabonen aurretik positibo batekin denei egin behar genien baheketa bat, orain ez. Badira hiruzpau konfinamendu bizi izan dituzten irakasleak. Zenbat denbora etxean, pantailaz bestalde.

Irakaslea gelan dago eta etxean dagoenak pantaila bidez jarrai dezake baina ez da gauza bera ez akademikoki, ez garen aldetik ere. Etxean sartuta zaude besteekin interakziorik gabe, irakasleak galdetutakoan pantailaz bestalde. Konfinamendua bera ere gogorra izan daiteke, bakoitzak bere etxean eta bere baitan bere errealtatea baitu; batzuk errazago kudeatuko zuten baina batzuk sufritu ere bai. Eta gurasoek ere bai, gogorra.

Emozioena izango zen kolpatu den alorra bereziki, beharrok zenbateraino hartu diren kontuan ikusita...

Behar adina ez dira kontuan hartu haurren eta gazteen beharrak, ezta gutxiago ere.

Eta langileonak? Osasun zerbitzuen lanak egitea egokitu zaizue, ezjakintasuna erabatekoa zenean.

Zoriontzekoa da irakasleak egiten ari diren lana. Lana bikoiztu egiten da, gelan gehi etxean daudenez arduratu behar dira. Ikasleei emozioen inguruan galdetu behar diezu, batzuk hitz egin nahi dute besteek ez. Emozioen eragina nabarmena da dudarik gabe, eta honek ekarriko duena oraindik. Diseinu talde bat dugu, duela hiru urte hasi ginen. Lehen urtean espazioak landu genituen. Iaz komunikazioa eta enpatia etxetik bueltan etorri ginen. Etapa bakoitzean egiten dira ekimen desberdin batzuk umeengana banaka gehiago heltzeko.

LHn adibidez, hiruhilabetero hasieran eta erdialdera presatua duten autogaldeketa bat egiten dute, ikaslea nola sentitzen den hitz egiteko. DBHn banakako bilerak egiten ditututoreak. Gai honi tartea eskaintzen segitzen diogu ikasturte honetan. DYArekin ere formazio batzuk egitekoak gara. Iruditzen zaigu txikitatik hasita hezi behar dugula osasunaren gaiaren inguruan.

“Txarretik ere ari gara ikasten”

NOAUA! Krisialdi orok aukera berriak ekar ditzake. Pandemia ere zer behar kudeatu irakasten ari zaigu?

Nerea Erauntzetamurgil: Lehen agian ez genituenak hainbeste lantzen orain landu beharrekoak direla kon-

turatzen gara. Jabetzen gara baita pandemia hasieran etxeratu ginenean, segituan etorri zitzaigula Hezkuntza Sailetik gutxienekoak bete behar ziren eskakizuna. Konturatzen gara askotan ze gutxieneko puskak genituen arlo bako-


itzean eta horiek etorkizunean bizitzarako baliabide gisa ez dira beharrezkoak. Edukiak beharrezkoak dira baina neurri batean. Beharrezkoak egunerokotasunean bizitzari aurre egiteko estrategia horiek lantzea eta horretarako autono-

mia, enpatia, asertibitatea, elkar laguntza, elkarrekin bizitzen ikasten jakitea da. Txarretik ere ari gara ikasten. Osasun zerbitzuekin batera hezkuntza ze oinarritzakoa dugun agerian geratu da.

Hizkuntzan adimen artifiziala sustatzeko hitzarmena

Elhuyarrek lankide-tza-hitzarmen bat sinatu du Zaragozako, Paueko, Euskal Herriko unibertsitateekin eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, hizkuntzan adimen artifiziala sustatzeko. Hitzarmen honi esker, euskararentzat, aragoierarentzat eta okzitanierarentzat EFA 227/16/Linguatec proiektuan garatutako tresna eta aplikazio teknologikoak erabili eta inplementatu ahal izango dituzte unibertsitateek.

Sinatu duten hitzarmenak lau urteko iraupena izango du, eta hartan zehazten da parte hartzen duten erakundeek zer lankidetzat izango dituzten Europako Linguatec proiektuan garatutako hizkuntza-teknologiak erabiltzeko. Mugaz gaindiko lankidetzat proiektua da, eta haren helburua da aragoieraren, euskararen eta okzita-



Hitzarmen ekitaldia Jakan egin zen. Eskubikoa Jon Abril da, Elhuyarrek koordinatzaile nagusia.

LANKIDETZA HITZARMENA

Euskara, aragoiera eta okzitanierarentzako aplikazio teknologikoak garatuko ditu Elhuyarrek

nieraren digitalizazio-maila hobetuko duten hizkuntza-ba-

liabide, -tresna eta -aplikazio berritzaileak garatzea, erakustea eta hedatzea.

Proiektuak hizkuntzen arteko lankidetzat teknologikorako aukera eman du, hizkuntza-baliabide eta tresna berriak garatzeko, baita onlineko aplikazio berriak ere, hiru hizkuntzen

erabilera errazteko eta erabiltzaileek edukietarako sarbide eleaniztuna izan dezaten.

Elhuyar arduratuko da unibertsitateen esku jartzeaz euskara, aragoiera eta okzitanierarentzako garatutako tresna eta aplikazio teknologikoak.

Europako finantzaketa egitura hizpide izan zuten Udarregin



Adrian Zelaia Ekai Centerreko zuzendariak hitzaldia eskaini zuen aurreko astean Udarregi ikastolako jantokian.

Europako finantzen egituraketa zalantzan jarri zuen Adrian Zelaia Ekai Centerreko zuzendariak ostegunean. Bizitza plataformak gonbidatuta, Udarregi Ikastolan eskaini zuen hitzaldia hainbat eta hainbat entzuleren aurrean.

Asia eta Amerika, batez ere, kontuan hartuta, arlo askotan konparatu zituen herrialdeak, eta Europaren hazkundea geroz eta geldoagoa den bitartean, garapen bidean dauden herrialdeen lana bere fruituak ematen ari dela azpimarratu zuen.

Bizitza plataformak auzitan jarri du haurren txertaketa



Haurren txertaketa pil-pilean da baina Arturo Vinuesa medikuak ez du beharrezko ikusten.

Haurrei Covid-19aren aurkako txertoa jartzea auzitan jarri zuten Bizitza plataforma eta Ekai Centerrek antolatutako hitzaldian. Arturo Vinuesa medikua arduratu zen hitzaldia gidatzeaz. Haurren txertaketa pil-pilean da baina Vinuesa medikuak ez du

txertaketa beharrezko ikusten. Datu zientifikoetan oinarrituta, heriotza tasa edo gaixotasunak izateko probabilitatea oso oso baxua da (%0,1era ez da iristen). Albo kalteak izateko aukera berriz, kontuan hartzekoa izan litekeela dio.

Danbor hotsen itzulera ikastetxe atarietara

Donostia Egunaren oihartzuna gure artera heldu zen iragan astean. Danbor hotsek inguratu zituzten ikastetxe atariak. Urtarrilaren 19an Udarregi Ikastola, Agerialdeko patioan eskaini zuten ikasle gazteenek publikorik gabeko emanaldia. Gauza bera egin zuten Zubietako Eskola Txikiko ikasleek ere. Biharamunean, Aginagako Eskolakoek ikastetxe pareko frontoian berri-
tu zuten 'San Sebastian martxa'.



Udarregiko ikasleek Agerialdeko patioan eskaini zuten publikorik gabeko emanaldia.



Aginagako ikasleak frontoian aritu ziren.



Zubietako ikasleak, eskola atarian. Argazkia: eskolatxikiak.eus/bloga/zubietako

NOAUA!-ko kide izateko borondatea saritu dugu

Orain arte NOAUA! Kultur Elkartearen bazkide izateak hainbat abantaila zekartzala aipatu izan dugu sarritan. Baina bazkidetza tramitatzeak ere bai orain; abendura bitarte NOAUA! kide bilakatu diren bazkide berrien artean herriko dendetan xahutzeko 150 euroko erosketa bonua zozketa genuen urte amaieran.

Koldo Zulaikarentzat

Argazkiko herritarra, Koldo Zulaika duzue saritua. Mila esker kultur elkarte honi babesa adierazten segitzen duzuenoi, zuek guztiok bermatzen duzue eta proiektu honen biziraupena.

2022an ere sari gehiago izango dira, adi beraz Bazkideen Txokoari!



Koldo Zulaikak 150 euroko erosketa bonua eskuratu du.

noaia.eus web orrialdeak 20 urte bete ditu

NOAUA! rentzat ospa-
kizun urtea izan zen
iazkoa. Aldizkariak 25
urte bete zituen eta urteurre-
naren aitzakian egitasmo ugari
burutu genituen; hedabideetan
nahiz kalean. 2022an murgildu
garen honetan, noaia.eus web
orrialdearen urteurrena nabar-
mendu behar dugu. 2002an
sararatu genuen lehen aldiz eta
geroztik erreferentziatzeko ataria
da usurbildar askorentzat.

2002ko irailean abiatu zen
noaia.eus web orrialdearen
ibilbidea. Hitz hauekin aurkez-
tu genuen egitasmoa: “Gure
komunikazio proiektua indartu
eta osatu bidean, www.noaia.
com webgunea sortu dugu.
Orain arte NOAUA! hamabos-
karia izan da gure informazio
tresna nagusia. Baina, ares-
tian esan bezala, gure burua
garai berrietara egokitu nahi
dugu, eta bestelako medio ba-
tzuk sortu eta erabiltzea, gaur
gaurkoz, ezinbestekoa da. Eta
www.noaia.com guneak horri
erantzun nahi dio”.

Aldaketa handiak 20 urteotan
Geroztik hona aldaketa han-
diak izan dira komunika-
zioaren esparruan. NOAUA!ren
baitan ere bai. Duela 20 ur-
teko hitz horietan erreparatu
baduzue, konturatuko zineten
hamaboskariak mintzo ginela.
2005ean bilakatu zen aldizka-
ria astekari.

Web orrialdearen helbidea
ere bestelakoa da 20 urteren
buruan. Euskal deitura du
orain: noaia.eus helbideak
ordezkatu du hastapeneko
noaia.com delakoa. Eta auke-
ra eta zerbitzu gehiago eskain-
tzen ditu orain.

2019ko jauzia, erabakigarria

Bi hamarkada hauetan aldaketa
gehiago eman dira. Nabarmene-
na akaso 2019an eman genuen
jauzia izan zen. NOAUA!ren
web orrialdeak itxura berri
bat hartu zuen. Azala egune-



The screenshot shows the noaia.eus website interface. At the top, there's a navigation bar with links like KAFE GARAIA, ALDIZKARIA, AGENDA, ZORION-AGURRAK, ARGAZKITEGIA, NOAIA! TB, and BAZKIDETZA. The main content area features a large photo of a group of people running in a race, with the headline "Apirilaren 8an goizaldean helduko da 22. Korrika gure artera". Below the photo, there's a sub-headline "Euskararen aldetik lasterketak apirilaren 8an, ostiralek zehorikatu du Aginaga, Usurbil eta Zubietan." To the right, there are two smaller video thumbnails with captions: "Danbor hotzak ikastetxe atarietara itzuli dira" and "Europako finantzaketa egitura zalantzan jarri dute".

noaia.eus atariak TOKIKOMeko gainontzeko hedabideek baliatzen duten web-plataforma berdina erabiltzen du.

NOAUA.EUS

**“NOAUA!k lantzen dituen
edukiak modu erosoan
eta arinean irakurtzeko
aukera dugu”**

ratzeaz gain, noaia.eus web
orrialdearen edizio sistema ere
aldatu genuen.

TOKIKOM tokiko euskarazko
hedabideen sarean txertaturik
geunden lehendik ere. Orain

ordea, noaia.eus atariak TOKI-
KOMeko gainontzeko hedabi-
deek baliatzen duten makina
berbera erabiltzen du.

CodeSyntax enpresak ga-
ratu zuen gure gaur egungo
web-plataforma. Hiru dira
abantaila nagusiak:

1.- NOAUA!k lantzen dituen
edukiak modu erosoan eta ari-
nean irakurtzeko aukera dugu.
Puntakoa den teknologia bali-
tuz.

2.- Gure web orrialdea eskuko
telefonoen logikara egokitu
dugu. Ez ahaztu gero eta ge-
hiago nabigatzen dela telefono
zein tablet gailuen bitartez.

3.- TOKIKOMen plataforma-
ren parte gara. Euskarazko 60
toki komunikabidek osatutako
sarea da TOKIKOM. Hasieratik
gara sare honetako kide. Orain,
kide izateaz gain, TOKIKOMek
garatutako web plataformako
partaide ere bagara.

25 urteotako aldizkari guztiak, sarean irakurgai

2019an, TOKIKOMek garatu-
tako web plataformarekin bat
egin genuen. Sistema zaha-
rretik berrirako saltoan, hain-
bat gauza galdu ziren bidean.
Migrazioa ez zen behar beza-
la egin eta horren ondorioz
NOAUA! aldizkariaren ale za-
har batzuk ezin ziren sarean
irakurri. Iaz, 25. urteurrenaren
aitzakian, zenbaki denak igo-
tzeko ahalegina egin genuen.
Urteka daude antolatuta aldiz-
kariak eta urtean klik eginez
gero, hilabeteka aurkituko di-
tuzue argitalpen denak.



The screenshot shows the noaia.eus/prentsa/noaia/ website. It features a grid of magazine covers from various years. On the right, there's a section titled "Artxiboa" (Archive) with a list of years from 2006 to 2022, each with a corresponding thumbnail image of a magazine cover. The years listed are: 2022ko zenbakia, 2021ko zenbakia, 2020ko zenbakia, 2019ko zenbakia, 2018ko zenbakia, 2017ko zenbakia, 2016ko zenbakia, 2015ko zenbakia, 2014ko zenbakia, 2013ko zenbakia, 2012ko zenbakia, 2011ko zenbakia, 2010ko zenbakia, 2009ko zenbakia, and 2008ko zenbakia.

noaia.eus/prentsa/noaia/ helbidean topatuko duzue aldizkariaren txokoa.

Audientziak gora egin du modu nabarmenean

2020an, noaua.eus web orrialdeko erabiltzaileen kopurua asko igo zen, %22'84. Covid-19ak ekarri zuen konfinamenduak eragin zuzena izan zuen igoera horretan. Lehen itxialdi hartan, noaua.eus erreferentziazko hedabidea izan zen usurbildarrentzat. Audientzia horri eustea izan zen 2021eko erronkarik handiena eta lortu gurela esan daiteke. 2021ean erabiltzaile kopurua 44.783koa izan zen. 2020an, 45.859 izan ziren guregana hubildu ziren erabiltzaileak. 2019an, 37.331. Atera kontuak.

Bisitak

Erabiltzaile kopurua mantendu bazen ere, bisitek gora egin zuten 2021ean: %11,50. 2021ean 163.074 bisita jaso genituen noaua.eus web orrialdean. 2020an, 146.250 bisita; 2019an, 102.227.

Ikustaldiak

Ikusitako orrialdeen kopuruak ere gora egin zuen 2021ean, %9'77. 2021ean ikusitako orrialdeak 322.712 izan ziren. 2020an 293.996 izan ziren ikusitako orrialdeak eta 2019an, 230.310.

Sarean eta paperean

Web orrialdea (noaua.eus) ez



'Kafe garaia' ataleko bideo-elkarrizketa guztiak noaua.eus/bereziak/kafe-garaia helbidean topatuko dituzue.

ELKAR ERAGITEN DUTE

"Web orrialdea ez da NOAUA! astekariaren isla. Aspalditik dira bi hedabide ezberdin"

da NOAUA! astekariaren isla. Aspaldian dira bi hedabide ezberdin eta guk halaxe lantzen ditugu. Sare sozialek ere logika propioa dute eta ez dira papera edo web orrialdearen bozgorailu hutsak. Bakoitzak du bere logika eta bakoitzak du bere mekanika propioa. Hala ere, denak lotzeko ahalegina egiten dugu. Elkar eragin dezaten.

Jende asko sare sozialen bidez iristen da hedabideetako edukietara. Guk ere sumatu dugu fenomeno hori. Bisitari askok sare sozialetatik "elikatzen dute" euren informazio gosea, eta sare sozialetatik ailegatzeko dira noaua.eus orrialdera.

Elkar-eragile dira hortaz, noaua.eus web orria eta sare sozialak (twitter/noaua, facebook/noaua, youtube.com/noauatb, instagram.com/noauaastekaria/).

Horren jakitun izanik, gero eta presentzia handiagoa dugu sare sozialetan. Facebook, Twitter eta Youtube izan dira

gure kanal nagusienak azken urteotan. 2019an ahalegin berezia egin genuen Instagramen eta 2020an indar handia hartu zuen. 2021ean ere, gure sare sozial guztiek jarraipen zabala izan dute.

NoauaTB bideoteka

Web orrialdean bada NoauaTB izeneko atala. Bideoteka hau ere handitzen doa. 2021. urtean 355 bideo pieza sareratu eta noaua.eus web orrialdearen bidez zabaltzen genituen. Eta albistei dagokionez, batzuek beste 31 albiste plazaratu genituen astero noaua.eus web orrialdean.

NOAUA!ren sare sozialek ere jarraitzaile ugari dituzte

facebook/noaua

2021ean, 1.658 jarraitzaile batu zituen NOAUA!ren profilak.

- 2020an, 1.613 jarraitzaile.
- 2019an, 1.516.
- 2018an, 1.420.
- 2017an, 1.377.
- 2016an, 1.242.
- 2015ean, 1.016.
- 2014an, 886.
- 2013an, 771.
- 2012an, 645.

twitter/noaua

2021ean, 1.481 jarraitzaile batu zituen NOAUA!ren profilak.

- 2020an, 1.420 jarraitzaile.
- 2019, 1.295.
- 2018an, 1.182.
- 2017an, 1.085.
- 2016an, 954.
- 2015ean, 755.
- 2014an, 643.
- 2013an, 487.
- 2012an, 313.

instagram/noauaastekaria

■ 2021ean, 1.029 jarraitzaile.
■ 2020an, 892. 2019an, 616.

youtube/noauatb

2021. urtea 492 harpidedun. Pilatutako ikustaldiak: 501.151.
■ 2020an, 433 harpidedun eta 450.984 ikustaldi.
■ 2019an, 324 harpidedun eta 397.733 ikustaldi.
■ 2018an, 252 harpidedun eta

317.309 ikustaldi.

- 2017an, 173 harpidedun eta 235.004 ikustaldi.
- 2016an, 101 harpidedun eta 155.918 ikustaldi.
- 2015ean, 49 harpidedun eta 93.209 ikustaldi.
- 2014an, 29 harpidedun eta 58.038 ikustaldi.
- 2013an, 15 harpidedun eta 37.007 ikustaldi.
- 2012an, 5 harpidedun eta 11.567 ikustaldi.

“Lan egiteko modua esperientzia berri bat izan da”

Euskal sorkuntza bul-tzatzea helburu zuen Udalbiltzak sustatutako “Geuretik Sortuak” egitasmoak. Hainbat ipuin, antzezlan eta film labur ekoitzi dituzte azken urtean beste hainbeste euskal sortzaileek, haien ohiko bizilekutik kanpo Euskal Herriko txoko desberdinetan egin dituzten egonaldietan. Bilduma horretan daude lerrootako elkarrizketatuen sortze lanak ere. Ugaitz Agirrek Artziniegako egonaldian landu zuena eta Yolanda Arrietak Etxarrin sortutakoa.

NOAUA! Zein da zeure sortze lanaren abiapuntua?

Ugaitz Agirre: Artziniegako kokaturiko lapurreta bat. Artziniegako historia, gaur egungo gizartea edo dauden talde desberdinak identifikatu eta horiekin pixka bat jolastea nahi nuen. Egonaldia hiru zatitan egin nuen.

Egonaldiak buruan zenuen ideia aldarazi zuen?

Kokatu eta irudimena libre uztea izan da egin dudana. Ideia gauzatzea sinplea izan da, batzuetan idazten jarrita gehiago kostatzen zen.

Emaitzarekin pozik zara?



Ugaitz Agirrek (eskubian) ‘Geuretik Sortuak’ egitasmoan hartu du parte.

UGAITZ AGIRRE

“Azken uneraino, entrega data amaieraraino aritu nintzen idazten eta zuzentzen”

Azken uneraino, entrega data amaieraraino aritu nintzen idazten eta zuzentzen. Lan egiteko modua esperientzia berri bat izan da.

Zer neurritan izan da desberdina aurreko sormen lanetatik?

Google maps erabiltzen nuen aurreko sormen lanetan, ezagutzen ez nituen tokiak aurkitzeko. Kasu honetan, Artziniegan bertan nintzen, mugimendua bera lehen pertsonan ezagutzen duzu. Dokumental batean kamerak une

batean grabatu dezakeena ikus dezakezu. Artziniegan errealtatean bertan bizi nintzen.

Sortzailea sormen lanean gehiago murgiltzeko aukera beraz.

Zu sartzen zara besteen habitat batean, beraz eragingo duzu bai edo bai.

Behatze lana izan zen Artziniegakoa.

Eszena hau hala non irudikatu, herriko jarrerak, zer gauza dauden, tokiak ezagutu, natur eremuak, argazkiak atera...

Proiektua zenbateraino ego kitu da Artziniegara edo alde-rantzizkoa gertatu zaizu?

Hasiera nahiko sinplea zen, Artziniegan kokatu behar nuen istorioa. Artziniegako jendea

nora joan zen emigratzera begiratzen egon nintzen. Mexikora dezente. Hori nola kokatu Artziniegan, handik alde egin izana. Protagonista euskal jatorriko latinoamerikarra izango zela planteatzen nuen, ni bezala kanpotik bere sustraien bila datorren bat. Bestalde, Erdi Aroan umezurztegi bat zegoela aipatu zidaten. Abizenak ez zituztenei Arceniega edo Encina jartzen zietela. Bazela baten bat, umezurztegi baten ondorengo ondo-rengo ondo-rengo bat. Ehiztariak agertzen dira. Elizak protagonismoa ere badu. Alboko udalerrian, Kexanan bazen XIII. mendeko erretoa bat. Diru gutxiren truke saldu eta Chicagoko museoan dago, izugarritzko balioa du. Herrian garrantzia izan dezaketen gauzekin jokatu dut.

Itxaro Borda Sutegin

Usurbilen izan zen iazko uztai-lean. Itxaro Bordak “Gauak zuri Usurbilen” izeneko lana ondu du. Otsailaren 2an aurkeztuko du 19:00etan Sutegin. Ekitaldi-rako izena aurrez bidera daiteke usurbilkultura.eus plataforman. Bere idazlana eta gainerakoen bilduma, “Hamazazpigarrenean aidanez” izeneko ere aurkeztuko dute Lide Hernandok gidatuko duen solasaldian.

Ipuinetan girotutako herriak ezagutzeko aitzakia ederra

NOAUA! Zer izenburu du zure sortze lanak?

Ugaitz Agirre: “Izaro izeneko printzesa eta krimen zoroan-garriaren tesia”.

Zeurea gainerako sortze lanekin bilduma batean txertatua dago. Aurkezteko garaia datorkizu.

Artziniegan bertan aurkeztuko dut, Korrika igarokoden apirila hasieran.

“Geuretik Sortuak” egitasmo

hau naziogintzaren ikuspuntutik baliagarritzat jo zenuen Artziniegara joan aurretik. Ikuspegia aldatu zaizu esperientzia honen ostean?

Antzekoa da. Orain irakurleen funtzioa hasten da. Ia 400 orrialdeko bildumak dira eta irakurtzean ikusiko duzu hainbat narrazio lan Euskal Herriko toki ezberdinetan kokatuta. Eta hor islatua egon eta indartuko da nazio ikuspegi hori. Ipuin bat herri bakoitzean girotuta, herriok ezagu-

tzeko aitzakia ederra da.

Hartueman bat sortzen da herri- eta sortzaileen artean.

Lan batean berez ez du zertan tokiak garrantzia izan, kasu honetan bai. Toki horretan elaboratutako hori bueltan ematea polita da.

Balantze positiboa beraz.

Interesgarria litzateke egitasmo honek beste diziplina batzuekin segida izatea. Aukera ematen die bere diziplinan

konsolidatuak daudenei eta “hasiberriei” edo hasi nahi dutenei ate bat zabaltzen die. Motibagarria izan daiteke.

Gainerakoan sortzen segitzen duzu?

Oraintxe asko irakurtzen eta esperimentatzen nabil. Ideiaren bat edo beste badut. Ia udan zerbait taxuzkoa idazten dugun, orain presarik gabe informazioa biltzen nabil.

Yolanda Arrieta: “Oso irekita joan nintzen, bidaiari moduan, eta ez turista moduan”

NOAUA! Zer nolakoa izan da Etxarriko esperientzia?

Yolanda Arrieta: Udaberrian as-
tebetetxo bat egin nuen. Aurre-
tik pare bat bider joan nintzen
bertako jendearekin hitz egite-
ra eta gero han egongo nintzen
egunetan hartuemanak adostu
nituen ikastetxeekin eta zen-
bait informatzailerekin. Nire
asmoa han aurkitzen nuen
horrekin zatitxo desberdinak
idaztea zen, horregatik izena
du “Estekak”. Azken batean bi-
daiari moduan zoaz eta adi-adi
zaude zer ote dagoen herri ho-
rretan. Hor jasotzen dituzun
guztia elkar lotuak dauden
estekak baino ez dira.

“Estekak” izena du beraz zure sortze lanak.

Estekak ere batzuetan atea-
k dira, Interneten zabaltzen
zaizkigun informazio atariak.
Beraz loturak badaude bai-
na atea ere badira. Izenburu
irekia zela iruditu zitzaidan,



Yolanda Arrietak “Estekak” izeneko sormen-lana idatzi du Etxarrin.

YOLANDA ARRIETA

**“Ez da kronika lan bat.
Badu poesiatik,
baina badu fikziotik ere”**

azken batean ez nuelako ideia
itxi batekin joan nahi, ez nekie-
lako han zer aurkituko nuen.
Eta zatika idazte hori atsegin
dut, askatasuna ematen dida-
lako eta nire izaera halakoa
delako pixka bat. Lehenengo
intuizioz jaso eta jasotzen du-

dan horri loturak bilatu; eta
horixe egin nuen. Atera zaida-
na da han egon nintzen den-
borako halako testu puzzle bat
eta puzzle horretan estekatzen
dira bidaiaria, eta bidaiariak
ikusten duena eta ikusten duen
horretan pertsonaiak, ahotsak
daude. Ez da kronika bat, badu
poesiatik, baina badu fikziotik
ere. Badaude ipuinetak, filme-
tako nahiz historiako perso-
naiak, denak bertan kokatuta.
Espazio aldetik plaza ingurua,

basoa, eta gero herriaren in-
guruan dauden bide desberdi-
nak nabarmentzen ditut.

Bidaia honek zer irakatsi dizu?

Oso irekita joan nintzen, bi-
daiari moduan ez turista mo-
duan. Proiektua aurkeztu
nuenean ere nire asmoa zen
herrira joan eta zentzumenak
adi bertan igarotzea egunak,
bertako oinarritzko guneak an-
tzeman eta herrian mugitzen
den jendearengana hurbiltzea.
Ikasi nuen hori metodo ona
dela leku bat ezagutzeko.

Esperientzia honek zer izan du berritzailetik?

Ikasi dut bere denbora behar
duela sormen prozesuak ere.
Uste nuen hantxe bertan egin-
go nuela zirriborrorik handiena
baina han egin nuena izan zen
informazioa jaso. Baina hori zen
osagaia, gero ahots desberdinak
topatzea, loturak bilatzea zeto-
rren. Hori Usurbilen egin nuen.

“Sormenak asko du bizitzatik. Dena”

NOAUA! Emaizarekin pozik?

Yolanda Arrieta: Emaizarekin
eta bidaiarekin. Iruditzen zait
idea ona dela, sortzaileok
jendearekin nahastea eta he-
rri batean denbora bat igaro-
tzea, eta joatea hara azaltze-
ra jendeari zertara goazen,
informazioa jasotzea haien-
gandik. Nahasketa hori oso
interesgarria da bai guretzat
bai beraientzat ere, ikusteko
gu pertsona normalak garela.

Iruditzen zait, gure lana duin-
tzeko normalitate batean ere
sartu beharra dagoela.

Sorkuntza prozesua plazara gerturatzen du?

Polita da nola ibili garen be-
raiengandik gauzak entzuten.
Azkenean pertsonaiak pertso-
nen bizipen, amets, oroitzape-
netan eraikitzen ditugu. Hori
galdetzea beraientzat arraroa
da, orduan konturatzen dira

sormenak asko duela bizi-
tzatik. Dena. Eta gero berriro
egiten duguna guk beste modu
batean kontatu berriro ere he-
rrira bueltatzeko eta horrekin
hausnartu eta erreparatu egiten
diogula etenik gabe igarotzen
ari den bizitza deitzen diogun
hau. Iruditzen zait polita dela
tarte bat ematen duelako geure
buruaz hitz egiteko, bizi du-
gun lekuei buruz hitz egiteko.
Emaizak ere aurkeztuz, bitar-

tean denbora guztian ari gara
euskaraz sortzen, hitz egiten,
kontatzen eta horrek euskara-
ren imaginarioa handitu, eli-
katu egiten du.

**Kontatutakoa kontatzeko ga-
raia dator orain. Nondik nora
sortze lan hau aurkeztu?**

Etxarrin otsailaren 3an eta
martxoaren 3an Hernanin
irakurketa dramatizatua ber-
tako musika eskolakoekin.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·karta ·oilasko erreak, pizzak..
JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44


EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182


JUANXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008


Otar-Goxo
Elkagaia
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Sormenaren bihotzean ‘Bidaide’

Sutegin taularatu zuten larunbat arratsaldean gure kulturaren ondareari erreparatu eta horretaz hausnartzeko sortutako Bidai-de antzezlan. Metrokoadroka Sormen Laborategiaren sormen lanak Sutegi bete egin zuen, betiere edukiera neurriak errespetatuta.

Sartzerako, batukada bat egin zuten Sutegiko sarreran, eta ondoren, antzezlanari heldu zieten. “Zerk mantentzen du kultura bizirik?” galdera horren erantzunaren bila aritu ziren Metrokoadrokako kideak, euskal kulturaren elementu nagusienetakoak modu erabat artistiko eta bisualean erakutsiz: erraldoiak eta buruhandiak, txalaparta, erromeriak... Amaieran, bi gonbidatu berezi izan ziren: Ugaitz Agirre idazlea eta Ixabel Agirresarobe ipuin kontalari eta aktorea. Kulturgile ezagunak ditugu biak herrian. Hainbat galdera erantzun zi-



“Zerk mantentzen du kultura bizirik?” galderaren erantzunaren bila aritu ziren Metrokoadrokako kideak.

KULTURGILEEN BILGUNE

“Ugaitz Agirrek eta Ixabel Agirresarobek parte hartu zuten emanaldian”

tuzten euren sormen lanak nola sortzen dituzten eta euren kulturzaletasunari buruzkoak.

‘Geuretik Sortuak’-en eskutik

Udalbiltza partzuergoko udalek, tartean Usurbilgoak iaz

euskal kultura eta sorkuntza bultzatzeko “Geuretik Sortuak” izeneko egitasmoa abiarazi zuten. Horren baitan, euskal sortzaile hainbatek antzezlan, film labur edota eleberriak landu dituzte iragan urtean zehar; tartean Yolanda Arrieta eta Ugaitz Agirre idazleek. Horietako lan bat da Metrokoadroka Sormen Laborategiko kideek eskainitako Bidaide antzezlan.

Emakumeen Jabetza Eskola

Bi ikastaro antolatu ditu Usurbilgo Udalaren Parekidetasun Sailak Emakumeen Jabetza Eskolaren baitan.

Pepa Bojoren ikastaroa

Batetik abian den biodantza ikastaroa. Bestetik, “Gure arbasoak: gure leinu femeninoarekin lanean” izeneko Pepa Bojorekin otsailaren 3tik maiatzaren 5era, ostegunero 17:00-19:00 artean Potxoenean.

■ Izen ematea: 943 377 110
parekidetasuna1@usurbil.eus

Azken ostiraleko elkarretaratzea

Urtarrileko azken ostiralarakin batera, euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko hileroko mobilizazioa Sarek deituta. Datorrena, urtarrilaren 28an iluntzeko 20:00etan hasita Mikel Laboa plazan.

Ekintzaileentzako udal diru-laguntzen ebazpenak

Irailaren 30era arte aurkezturiko lau proiektu lagunduko ditu diruz Usurbilgo Udalak. Laguntza lerroetako bat “Hasisz Hazi” beka deialdia da. Ekintzaileek euren proiektua garatzeko Kabiene elkarlan gunean urtebeteko egonaldia egitea ahalbiden duen diru-laguntza deialdia. Hiru eskaera aurkeztu dituzte beste hainbeste ekintzaileek.

Laugarrena merkataritza

lokal hutsak jarduera ekonomiko berriekin biziberritzeko laguntza lerrora. Kasu honetan bi lerro bereizten dira. Hasierako gastuei aurre egiteko gehienez proiektuko 5.500 euroko laguntza eskaintzen du Udalak; eta bestetik, alokairu nahiz erosketa gastuei aurre egiteko laguntza 2 urtez (gehienez 300 euro hilero lehen urtean; gehienez 200 euro hilero bigarren urtean).



Kabien urtebeteko egonaldia egiteko aukera dago. Argazkia: Kabiene.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

lnaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITZAGARRIAK
info@lnakiiturgintza.com - www.lnakiiturgintza.com
600 024 825

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

GAR
GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

Dominez jositako beste urte oparo bat, Usurbil Judo Klubarentzat

Beste behin balantze ezin gozoagoa plaza-ratu du Usurbil Judo Klubak agurtu berri dugun 2021aren inguruan. “Kirol emaitzei dagokionez gure denboraldi onenatarikoa” izan dute. Federatuen mailan, Gipuzkoako txapelketetan 24 domina eskuratu ditu kirol talde usurbildarrak. “Gipuzkoako txapelketetan 20 final eta beste 13 final Euskadiko txapelketetan jokatu izanak, Gipuzkoako eta Euskadiko Klub goratuena bihurtzen digu denboraldi honetan”.

Espainiako txapelketa federatuetan ere 16 domina irabazi zituzten. “Azken hauek Hondarribiako Jaizubia Hotelean ospatutako Euskadiko judoko galan omenaldia jaso zuten.



Dominez josia amaitu dute urtea. Irudia: Usurbil Judo Kluba.

Horrela beraien denboraldi ona goraipatuz”. Are gehiago boro-biltzen dute denboraldi bikain hau judo klubeko esanetan, “Eskola mailako Gipuzkoako taldekako txapelketan” eskuratutako emaitzek. Bizi dugun osasun krisialdiaren adierazgarri, “2021ean egindako ekintza bakarra” izan zela gogorarazi

dute judo klubetik. “Hau Hondarribiako Jostaldi pilotalekuan jokatu zen eta Usurbilgo taldeak maila oso altuan aritu ziren”. Segidan dituzue emaitzak. Urte oparo honen ostean, “zoriondu nahi diegu irakasle, kirolari eta ekintza hau osatzen duten guztiei urte honegan egindako lanagatik”.

Federatuak

24 domina Gipuzkoako txapelketetan

- Urrezkoak: 13.
- Zilarrezkoak: 7.
- Brontzezkoak: 4.

16 domina Euskadikoetan

- Urrezkoak: 12.
- Zilarrezkoak: 1.
- Brontzezkoak: 3.

16 domina Espainiako txapelketetan

- Urrezkoak: 4.
- Zilarrezkoak: 6.
- Brontzezkoak: 6.

Eskola Kirola

Gipuzkoako taldekako txapelketetan

- Alebin neskak: brontzea.
- Alebin mutilak: urrea.
- Infantil mutilak: zilarra.

“Hotzak Akabatzen” probarako dortsalak agortu egin dira

Urtarrila amaierarekin batera bueltan dator, aurtan bai, iaz ospatu ezin izan zuten edizio boro-bilarekin Irisasi BTT “Hotzak Akabatzen”. Mendi bizikleta gaineko hamargarren proba igandean ospatuko da, urtarrilaren 30ean. Goizeko 9:00etan abiatuko dira parte hartzaileak Mikel Laboa plazatik. Gogoan izan, izen ematea itxita dago jada duela bi astetik. Dortsalak agortu zitzaizkion antolakuntzari, gehieneko parte hartze kopurura heldu ostean. Ho-

nenbestez, bai alde aurreko inskripzio epea nahiz proba egunean bertan hasi aurreko tarteko izen ematea ere itxita dago jada honenbestez.

Antolakuntzak zabaldu eta kontuan hartzeko zenbait ohar parte hartzaileentzat; batetik, kaskoa erabiltzea ezinbestekoa izango dela. “Martxa ez da lehiakorra, eta beraz, trafikoa zein beharrezkoa den zirkulazioa zabalik egongo da. Ibilbidean zehar, eskualdeko errepi-dea zein mendikoa erabiltzean, partaideak bide zirkulazioaren

arauak bete beharko ditu eta bera izango da egin ditzakeen arau-hausteen eta arduragabekeriaren arduraduna”.

“Errespetatu ibilbidea”

Azkenik, “proba herrikoia Gipuzkoako Foru Aldundia- ren jabetzakoa den eta ku-deatzen duen “Irisasi” Herri Onurako mendia- ren bide eta gune naturalak zeharkatzen ditu. Beraz, errespetatu beti antolakuntzak ezarritako eta balizatutako ibilbidea, bertatik atera gabe”.



“Martxa ez da lehiakorra. Trafikoa zabalik egongo da ibilbidean zehar”.

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ERAMATEKO!!!
-EGUNEKO MENUA-
-KARTA
ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Korrika apirilaren 8an helduko da gure artera

Osasun krisialdiak behartuta, urtebeteko atzerapenarekin baina badator 22. Korrika. Eta datorrenaren seinale jada AEK-k ezagutzera eman eta jakinmina piztu ohi duen xehetasunetako bat; ibilbidearena. Joan den astean iragarri zuten noiz igaroko den herriz herri euskararen aldeko lasterketa. Martxoaren 31n Araban, Amurrión hasi eta apirilaren 10ean helmugaratuko da Donostian, "Hitzekin" aldarripean. Usurbila, bi egun lehenago apirilaren 8an helduko da.

Goizean goiz, 6:26 aldera Aginagako Mapiletik sartuko da, N-634 errepidetik barrena Usurbilera iritsi eta Kaxkoari itzulia emango dio. Handik Santueneara eta Zubietara joko du gero. Mapilen hartutako lekukoa Zubietako hipodromoan emango zaio Lasarte-Oriari.

Kilometroen erreserba

Ohi bezala, Korrikako lekukoa eramateko aukera eskainiko du antolakuntzak. Horretarako, kilometroak erosteko aukera izango da beti bezala. Antolakuntzak jakinarazi duenez,



Goizean goiz, 6:26 aldera Aginagako Mapiletik sartuko da, N-634 errepidetik barrena. Argazkia 2019koa da.

KORRIKAKO ARROPA

Etumeta AEK euskaltegian salgai dituzue tamaina eta kolore ezberdinetako kamisetak, biserak...

otsailaren 1etik aurrera bideratu ahalko dira erreserbak.

Korrika Laguntzailea

Euskararen aldeko lasterketa babestu eta laguntzeko aukera

dugu. Momentuz, Korrika Laguntzaile izanda. 12 euroren truke edizio honetako pina eta txartela jaso eta hainbat abantailaz gozatzeko aukera eskura daiteke: 300 sari baino gehiagoren zozketak, lehentasuna edo deskontuak Korrikaren aldeko ekimenetan, deskontuak baita AEK-ko ikastaroetan eta AIZU! aldizkariko harpidetzan... Gogoan izan, "22. Korrikak jasotzen duen dirua, Euskal

Herri osoko gau-eskolei eta euskaltegiei laguntzeko erabili nahi dugu".

Korrikaren aldeko arropa ere salgai duzue Etumeta AEK euskaltegian; tamaina eta kolore ezberdinetako kamisetak, biserak, giltzarrapoak... Usurbilgo euskaltegitik berri eman dutenez, zenbaki gabeko petoak ere eskuratzeko moduan gara. Online bidez ere erosi daitezke materiala, korrika.eus atarian.

Kulturgileen elkargunea, geroz eta gertuago

Usurbilgo kulturgileek elkar-gunea sortzeko bigarren bileran egin zuten duela bi aste Potxoenean. Azaroaren erdialdean eman zioten hasiera partehartze prozesuari Udarregi Ikastolako erdiko aretoan, eta ordutik hausnartekarako tarte izan dute.

Azken bileran, herrian egin ohi diren ekitaldi nagusiak aztertu eta marko teoriko batean oinarrituta, azterketa sakonak egin zituzten talde txikitan. Sormenetik abiatu, zein espazio erabiltzen diren aztertu, komunikazio biderik ohikoe-

nak aurreikusi eta transmisio iturri nagusiak zerrendatu zituzten. Hori guztia modu sakinagoan aztertzeko, ekosistema osatzen duten elementuak aztertu zituzten, ondo baino hobeto baitakite elementu bakoitza ezin garrantzitsuagoa dela kultura sustatu eta zabaltzeko. Hori guztia modu sakinagoan aztertzeko, ekosistema osatzen duten elementuak aztertu zituzten, ondo baino hobeto baitakite elementu bakoitza ezin garrantzitsuagoa dela kultura sustatu eta zabaltzeko.

Funtzionamendua marrazten

Sortzaileak ezinbesteko elementuak dira kulturzaletasuna bultzatzeko bidean, baina prozesu hori luzea dela ondo baino ho-

beto dakite kulturgileek eta antolatzaileek gain, hedabideak, hezitzaileak eta zaleak ezinbesteko dituztela ondo baino hobeto dakite. Ikuspuntu teoriko hori guztia praktikan jarri dute Usurbilen egin ohi diren ekintza nagusiak adibidetzat hartuta: Dantza Eguna edo urterokoak diren ekitaldi jendetsuenak eta nagusiak aztertuta.

Bigarren bilerarako elementu horien atzean dauden eragile nagusien mapa zehaztuta zeukaten kulturgileek, baina bigarren honetan kasuak banan-banan aztertu zituzten herriko

funtzionamendua marraztu eta nola hobetu daitezkeen ikusteko. Gisa honetara, kulturgileen elkargune izango denak eragiteko plan nagusi bat izango du eta ustez modurik eraginkorrenean eragin ahal izango du ahalik eta jende gehien kulturara hurbiltzeko eta kulturazale berriez gain, kulturgile berriak ere sor daitezela. Talde txikitan ariketa ugari egin zituzten gaiari zukua ateratzeko, eta ondorio orokor batzuk atera ostean, hurrengo saioan are gehiago sakontzeko aukera izango dute.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316

Alokairuan

Etxe bat alokairuan kaxkoan. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela eta igogailuarekin. 656783227

Bi logeletako etxebizitza alokatzen dut Usurbilen. 750 euro hilabetean, maskotarik ez da onartzen. 647 58 72 58

San Esteban kalean (Etxealdia) 31m²ko lokal bat alokairuan. Masajeak emateko edo estetikaz zerbitzuak emateko prestatuta dago. 655735715.

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Usurbilen pisu konpartitu batean logela bat alokatzen

da mutil edo neska batentzat. Bila bazabiltza deitu 618032966

Neska kaudimenduna, masakotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

Usurbilgo gizonezko bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444 /atxega@atxegajauregia.com

Zaintzaile bat behar dugu, eguneko lau ordu, Eusko Jaur-laritzaren zaharrak zaintzeko titulua duena eta euskalduna dena. 943 000 333.

Zerbitzaria behar da Artzabal-en, barra, eguneko menua eta kartarako. 3 astetik behin asteburua jai. 30 orduko lanaldia. Interesatuok hona deitu: 943 36 91 39.

Olarrondo jatetxean zerbitzaria behar dute astebukaeretakarako. Eguerdian lan egiteko. 626 686 036.

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta

barrarako. Euskalduna izatea baloratuko da. 669 527 452.

Zerbitzari bila gabiltza Aginaga sagardotegian. Deitu telefono zenbakiotako batera: 943366710 edo 943370668.

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Interna moduan edo orduka pertsonen zaintzan lan egingo lukeen neska bat naiz. Mugitzeko aukera dut. Erreferentziak ditut. 643154392

Adinekoak eta haurrak zaintzak edota etxeko garbiketarako eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak

ditut 602568090.

Astelehen eta asteazken arratsaldeetan ingeleseko klaseak ematen ditut, norberaren etxean edo nirean. Klaseak ematen esperientzia zabala. 678106553.

Pertsona helduak, garbiketak, peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonezko bat naiz. 622747833.

BESTELAKOAK

Abenduaren 19an larruzko eskularru marroi bat (barrutik larru txuria duena) galdu genuen Harane futbol zelaietan. Aurkitu baduzu deitu 685725681 telefono zenbakira.

Txerriak salgai. Apote bat eta 9 zerrama dauzkagu salgai. 6/7 hilabetetako 5 txerrikume ere bai. Interesatzen bazaizu deitu 607 668 603 (Joxe Cruz)



Zorionak Jon! Gure etxeko bihurriak 2 urte bete ditu!!! Zorionak pottolo!!



Zorionak June! Otsailaren 1 ean 10 urte beteko dituzu. Besarkada eta muxu handi bat familiaren partez!

Futbol partidak**Haranen**

Urtarrilak 29, larunbata

■ 10:00 Infantil mutilak:

-Udarregi Usurbil FT A

-Ostadar SKT A

■ 12:00 Kadete mutilak:

Usurbil FT A-Arrasate CD A

■ 15:30 Erregionalak,

1. Maila:

-Usurbil FT

-Donostiako Kaleren Lagunak

■ 17:45 Preferente neskak:

Usurbil FT-Intxurre KKE

Goardiako farmaziak

Osteguna 27 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 28 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 29 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 30 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astelehena 31 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 01 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteazkena 02 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 03 ORUE

Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 04 DE MIGUEL

Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 05 ORUE

Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 06 ORUE

Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

• komertzial instalazioak • beira bikoitza
• segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
• ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Agenda

urtarrila

27 osteguna

- "Desazkundea" hizpide duen hitzaldia, bertan behera.

28 ostirala

- Euskal presoen eskubideen aldeko mobilizazioa. 20:00etan Mikel Laboa plazan. Deitzailea: Sare.

30 igandea

- Irisasi BTT "Hotzak Akabatzen" 2022. Mikel Laboa plazatik abiatuko da goizeko 09:00etan.
- "Apaiz kartzela" dokumentala eta solasaldia. 18:00etan Sutegin. Sarrerak usurbilkultura.eus atarian salgai.

'Apaiz kartzela' filma Sutegin

A badeentzako munduko kartzela bakarrean jazotakoa kontatzen du Ritxi Lizartzak, David Pallaresèk eta Oier Aranzabalek zuzenduriko dokumentalak. Frankismoaren errepresioa salatu zuten Zamorako apaizen kartzelan preso egondako lau abade presondegi horretara itzultzen dira. "Ezezaguna den istorio hau berreskuratzeko bidaia" kontatzen digu "Apaiz Kartzela" dokumentalak.



Xabier Amuriza da filmeko protagonistetako bat.

Usurbilgo Udalak igande honetan proiektatuko du 18:00etan Sutegin. Sarrerak 5 eurotan aurrez eskura daitezke

usurbilkultura.eus plataforman. Ikus-entzunezkoaren zuzendari eta protagonista batekin solasaldia izango da gero.

Desazkundeari buruzko hitzaldia, bertan behera

"Desazkundea: patu saihestezina nola bihurtu emantzipazio bide" izeneko hitzaldia antolatua zuen Anerreka ingurumen elkarteak, ostegunerako, urtarrilak 27, 18:30etan Sutegin. Baina osasun krisialdiaren eraginez, bertan behera utzi behar izan dute ekitaldia.

Igandeko BTT probarako dortsalak agortuta daude

Mendi bizikleta gainean Andatzari itzulua emateko aukera igande honetan, Irisasi BTT-ren "Hotzak Akabatzen" probari esker. Dortsalak agortu direla ohartarazi du antolakuntzak. Goizeko 9:00etan abiatuko dira parte hartzaileak Mikel Laboa plazatik.

Datozenak

Literatur solasaldia Itxaro Bordarekin

Geuretik Sortuak proiektuak euskara hutsean egindako "artearen eta kulturaren sormena, ekoizpena eta hedapena" sustatu ditu. Euskal Herriko herri ugariak hauspotu dute, tartean, Usurbilek. Literatura, zinea eta antzerkigintza izan dira jorratutako diziplinak. Itxaro Borda Usurbilen egin zuen sorkuntzarako egonaldia, eta hari eskaini ondutako ipuina. Borda eta ekimenean parte hartutako gainerako idazleen ipuinak bildu dituen lana aurkeztuko dute orain: "Hamazazpi-garrenean aidanez". Hura aurkezteko gurean izango dugu Itxaro Borda bera. Sorkuntza-lanaz, euskal kulturaz eta literaturaz aritzeko saioa izango da. Lide Hernandok gidatuko du".

- Otsailak 2 asteazkena.

- 19:00etan Sutegin.

- Izen ematea: doan usurbilkultura.eus plataforman, urtarrilaren 31ra arte. 93 lagunentzako tokia egongo da.

- Antolatzaileak: Udala eta Udalbiltza.



Otsailaren 2an Sutegin izango da Itxaro Borda.

Artzi
Patri 2022
Jatetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak. ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Sagar gazi eta gozoko
aurreneko zuku tantak
jaitsi dira.

Betiko Sagardoa

Sagardotegiko TXOTX

denboraldia zabalik.



SAIZAR

Sagardotegia

Sagardo berriak dasta ditzakezue segurtasunez
gure sagardotegian!

www.sidrassaizar.com



URDAIRA

Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 19tik maiatzak 1era
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan
lgande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria Erefiotzu - Hernani
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

www.iruinsagardotegia.com



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81

SAIZAR

Sagardotegia

www.sidrassaizar.com



943 37 39 95



SAGARDOTEGIA aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita

osasun neurri guztiekin

Tfn-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com



Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

ORDUTEGIA:

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea: 13:30-18:00

%100 bertako sagarra

Tel: 943 365 031

Santuenea

